



Dientes de Luna

Medusa

Dientes de Luna talde gernikarrak 2008an eman zion hasiera musika ibilbideari. "¡Esto sí que no me lo esperaba!" EP-a argitaratu zuten 2012an. 2015ean "Más vale tarde", "Utopista" 2018an eta 2019an "Atmosfera". Seikoteak euskera eta gaztelania erabiltzen ditu letretan.

Dientes de Luna taldearen "Medusa" diskoa 2020ko abuztuan grabatu eta nahasi dute Oier Palomok eta Jagoba Ormaetxeak Bilboko TAOM estudioetan. Carlos Hernandez Carbonellek masterizatu du Madrilgo CHC estudioan. Laguntzaileak dira Francis Doctor Deseo (ahotsa, "Marea" abestiaren bertsio digitalean) eta Gabriel de la Rosa (ahotsa, "37" abestiaren bertsio digitalean).

Dientes de Luna taldearen bosgarren diskoa da "Medusa", baina aurreko biek baino baterra (Utopista eta Atmosfera) trilogiaren azken atala beteko du. "Utopista" diskoak adieraziko digu lurra dagoela gure utopiak gauzatzeko. "Atmosfera" diskoak beharrezkoa du airea arnasa emateko utopiei. Eta "Medusa" da bizitzeko behar dugun ura, eta utopia guztiak egarri direlako, utopisten (utopikoen) zale. Soinu trinkoa du "Medusa" diskoak, rock indartsua, kolpe handikoa oinarritzeko ataletan, gitarren soinuak tropelean doaz nor baino nor, lelo asko ahots sasi urratuaren magalean. Power rocka elektronikaren fereka isilekin, power rocka modu progresiboan igeri egiten, arnas sakon hartuta hankan lurtean jartzeko zain. Marmokak ur korranteak bilatuko ditu helmugara iristeko, baina ba al daki nora ailegatuko den? Dientes de Lunak trilogiaren bidea hartu du taldearen soinuak biribiltzeko. "Medusa" indartsua atera zaio, kolpeduna. "Maldita" kantuak gitarra desberdinen arteko solasaldiak irudikatu nahi ditu baxuaren eta bateriaren eraginaren mende. "Dispárame". Baxuaren indarrean eraikitako abestia lelo atmosferikoekin. Amultsua da. "Piel a piel" power-pop, 90eko hamarkadako rockaren ukituekin. Amerikako leloak muturrean. "37" abestiak elektronikaren oinarriak ditu. Kantu sentikorra, lelo erakargarriekin. "Marea". Tom Pettyk bihotzak apurtu bazituen taldearekin, kantu honek antzeko marea eta korrontean dabil. Lelo esanguratsuak teklatuen koltxoekin. "Ezer bihurtzen den guztia" abestiak trenaren kolpea du oinarrian, eta abiadura gora doa erritmoarekin batera. Rocka eta power-rocka era progresiboan. Power-rock indartsua baina ferekatu egin duen abestia da. Harrapatu egingo zaitu eta limurtu, kantua inguratzailea da. "Medusa" instrumentalak ukitu elektronikoak ditu, abestirik geldoena da, sentiberatasuna gitarren zartada bakoitzean, beti ditu gogoak Dientes de Lunak rock progresiboa egiteko. Bestalde, Medusa greziar mitologiako izaki beldurgarria zen, harrizko begirada zuena. Harri bihurtzen zuen begietara begiratzen auzartzen zitzaionari. Dientes de Luna taldeak, antza, Medusari begiratu dio begietara eta rockaren garaian petrifikatuta geratu dira. Harria rocka baita, eta alderantziz.

MALDITA

Mintzen zaituen eta oso poliki jaten zaituen zerbaiz ezin izatearen amorrua. Zerbaiz nahi duzu baina ezagutzen ez duzun arrazoiren batengatik ezin duzula eduki jakitearen ondoeza. Buruan eta bihotzean tratatzen den maitasuna.

DISPÁRAME

Batbederak egindako bere bahiketa baten kronika. Zenbat ordainduko nuke nire salbazioagatik?

PIEL A PIEL

Min ematen badit ere, badakit elkarrekin edozer egiteko gai garen animaliak garela. Zurekin egoteak min ematen dit, zu gabe egoteak min, baina egun bat geratzen zaidala esango balidate, zurekin pasatuko nuke.

37

Izan zirelako gu izan ginen. Izan ginelako gara. Garelako izango gara. Izango garelako, izango dira. Izateak egiten gaitu, baina ez izateak ere bai 36ko gerran suntsitutako Gernika dakarkigu oroitzapen kolektibora, denok banan-banan garelako Gernika.

MAREA

Gizartearen txotxongilo bihurtzen diren pertsona eta musikari horiek guztiak kritikatzeko, beti arrakasta eta ospea bilatuz, eta horrela izateari utzi egingo diote.

EZER BIHURTZEN DEN GUZTIA

Ezarritako arauak geure buruarekiko bidea oztopatu digute. Xehetasun txikiak gorenean edo kakartean jartzen gaituzte, dena ematen digute, edo kendu egiten digute. Gauik zoroentetan alkoholez mozarrotzen gara gure benetako nia aurkitzeko; baina, nor naiz ni benetan?

MEDUSA

Instrumentala. Marmoka ura da. Hasiera edo amaiera izan daiteke.

Aimar Cid Luna: ahotsa, gitarra

Amaiur Zugadi Onaindia: ahotsa

Joseba Mugartegi Aretxabaleta: bateria

Lander Egia Malaxetxebarria: baxua

Unai Bilbao Ibarrola: gitarra, teklatuak, ahotsa

Gorka Etxeberria Gomez: gitarra

ritxi aizpuru + dientes de luna (2021eko azaroaren 9a)